

Kadentzia-formulak

Kadentzia-formulak [edo formulak soilik] izendatuko ditugun ariketekin hasiko dugu gure lana; ariketa horietan, gradu zifratu batzuek egituratutako prozesu harmoniko bat azaleratu beharra dago, zuzenean pianoan joaz.

Ariketa hauen praktika eta baxu zifratuena (horietaz dihardu II. kapituluak) aldi berean egitea gomendatzen da.

Bai formulak, bai baxu zifratuak lau partetara joko dira nagusiki, akordeen eraketa itxia (bildua) edo mistoa erabiliz; hau da, ezkerreko eskuak baxua bakarrik joko du, eta eskuineko eskuak gorputz harmonikoa. Horrek ez du esan nahi hiru parteko akordeak jo ezin direnik, ordea; izan ere, zenbait loturatan ezinbestez egin beharko dira halakoak, adibide hauetan bezala:

Beste lotura batzuetan ere gomendagarriak dira oso, goiko partearen monotonia saihesteko. Ondorengo adibidearen lehenengo bertsioan ondo zaindu da alde melodikoa:

Ez, ordea, bigarren bertsioan:

Bost partetara ere posible dira akordeak, bikoizketak edo hirukoizketak hartarako egokiak diren noten gainean egiten baldin baditugu —hurrengo adibidearen lehen bertsioan bezala—. Halere, lau partetara molda ditzakegu ia beti, eta hori da hain zuzen (ikus bigarren bertsioa) guk gomendatzen duguna, aurreraxeago ikasiko ditugun baxu zifratuen bertsio arpegiatuak kontuan hartuta, batik bat.

Honako formula hauek adierazitako tonutik landuko dira. Tonu hori minorra denean, segida harmonikoa beherako norabidean ulertu beharko dugu.

Kapitulu honen hasieran egin dugun gomendioari jarraituz, formula sorta bakoitzaren ondoan harekin batera edota ondorenean lan daitezkeen II. kapituluko baxuak adierazi ditugu.

Akorde triadadun formulak

1.	$I - IV - V$ 3	do maiorretik	2.	$IV - V - I$ 5	sol maiorretik
3.	$V - VI - IV - I$ 3	sol maiorretik	4.	$I - VI - V - I$ 5	sol maiorretik
5.	$V - VI - IV - V$ 3	la minorretik	6.	$IV - II - V - I^{(1)}$	mi minorretik
Landu 1. — 5. baxuak					
7.	$IV - III - II - V$ 3 6	sol maiorretik	8.	$III - II - V - I$ 6	sol minorretik
9.	$VI - IV - V - I$ 3 6	fa maiorretik	10.	$I - VI - IV - V$ 5 6	sol maiorretik
11.	$III - IV - V - I$ 6 6	sol maiorretik	12.	$I - IV - III - V$ 8 6 6	fa maiorretik
13.	$I - VII - I - V^{(2)}$ 8 6	fa maiorretik	14.	$VII - I - IV - III$ 6 6	sol maiorretik
15.	$I - IV - III - II - I^{(3)}$ 5 6 +6 3	sol maiorretik	16.	$I - II - III - IV - V$ 8 +6 3 6 6	fa maiorretik

Landu 6. — 11. baxuak

¹ Formulotan, modu minorreko II. graduko akorde naturala (5. gutxituko akordea) erabiliko dugu normalean; V. graduarekiko loturan goiko parteak beherako norabidean eramango dira, baxua gorantz doan bitartean.

² Modu minorrean bigarren akordea aldatu egingo da, dominante funtzioan diharduen guztietan.

³ Bistan da esklusibo deituriko zifratua erabiltzen dugula. Hari buruzko argibiderik nahi izatekotan, 1. eranskinaren taula eta azalpenak kontsulta daitezke.

Arpegiatzeko era bat baino gehiago² dago, dena den, eta harrotako edozein izan daiteke baliagarri xede honetarako; diseinu zehatz bat aukeratzeak, gainera, ez du esan nahi besterik azal ezin daitekeenik ariketa bereko uneren batean, kolore pixka bat emateko.

Akonpainamenduaren eta baxuaren artean hor litezkeen bostun eta zortzidunak (ikus A adibideko bigarren konpasa eta hirugarrenetik laugarrenetako lotura) erabat zilegi dira, errealizazioa akorde plakatuetara laburtuko bagenu zuzena izango litzatekeelako.

Zilegi eta ohikoak dira, orobat, melodiaren eta akonpainamenduaren arteko zortzidunak, baxuarekin sortzen direnak salbu, noski.

Baxuaren edota akordeen patroier erritmiko nagusia beltzaren ingurukoa baldin bada —8., 14., 19. eta 23. ariketetan bezala—, arpegioren figurazioa kortxearditan egingo dugu; hori bai, melodian kortxeardi ugari baleude, orduan akorde plakatuetak edo zatituetak joko genituzke, goian eta behean patroier erritmiko berbera eramateak traba asko sortzen baitu normalean.

Melodia jotzeko harizko edo haizezko edozein tresna (biolina eta flauta, hurrenez hurren, izan ohi dira gomendagarrienak, haien tesituragatik) erabil daiteke, baina horien ezean bigarren piano bat edo akonpainamendua egiten ari den piano bera baliatuko dugu. Azken kasu horretan zortzidun bat gorago jo beharko da, ikaslearen lanarekin ez oztopatzeko.

Ia derrigorrezkoa da azkeneko konpasa(k) apur bat astiroago irakurtzea.

Azkenik, erresonantzia-pedalaren erabilera, baimendua orain artean, gomendatua izatera pasatzen da hemendik aurrera.

Jarraian, hainbat melodia-baxu datoz; 21etik 24ra bitartekoak Bartzelonako Udal Musika Kontserbatorioko azterketetan erabili izan dira.